

AMAREN HERIOTZEA

edo anaiaren odola

Lan bidekari:

AITOR: Mirenen aita
MIREN: Anton eta Iñakiren ama
ANTON: bi anaiak
IÑAKI

Satan
Don Pablo español konde bat
Pantxo
Agaramontes eta Bromontes batzu

I

*Lan bidekariak sartzen dire kantuz eta entzun tokian joaiten jende guziera agur
emaiteko.*

Errepika

*Lan bidekari gira orai ethorriak
kurriturik itsaso mendi ta herriak*

*1/- Ilhun beltzean eder mendian akerra
minberak maite gauazko sukarra
Jaun Goikoaki egin du lurraren ederra
itsasoan burrunba izarren nigarra
.../ lan bidekari*

*2/- Zoin gozo bidez bide libro ibiltzea
Bulharretan nasaiki xurgatuz haizea
zoin gozo belhar loren luzaz usmatzea
oi biloak finfurren bozik kantatzea*

*Agur, agur, jende onak
Gau on dizuela Jainkoak
Bai zueri jaun andreak
eta ere andereñoak*

*Herriz herri jende onak
zuen ganat orai jinak
sala berean bilduak
bihotzetik agur jaunak*

.../ lan bidekari

*3/- Toki ederrak dira munduan ugari
Baratzetan loreak orotan ageri
gure bihotza doa zuen liliari
nehun ez du parerik berde xuri gorri*

.../ lan bidekari

*4/- eskual herria eder bainan dohakae
auzo herriak dira nahi haren jabe
hortarik zonbat herra zonbat gerla bide
ikhusiko duzue hemen luzaz gabe*

*AITOR etzanik dago azken hasperrenetan
Nabarra berriz dena nigar odoletan*

LEHEN ZATHIA

AITOR

I

AITOR eta IÑAKI
Ganbara bat, AITOR ohean da, IÑAKI sartzen da eta hurbiltzen zaio.

AITOR (*indarrrik gabe*): Hor zira Iñaki? Eta zure Anaia

IÑAKI: Jitekoa da oraino, baina jin orduko hemen duzu.

AITOR: Banoa haurra, ixtant baten buruko fini niz.

IÑAKI: Aitaso ez othoi holakorik erran.

AITOR: Zer uste duzu ala lotsa nizela hiltzeko? Goiz huntan komione saindua ukhana dut eta hil-eta Jainkoa ikusiko dut... Baina goizegi johan niz... edo berantegi... semeak elgarri aztaprkalatzekotan direlarik, etseak bezala, eta Aitor johan delarik etxea ez dagola luzaz xutik, ez othe dugu hain hortan gure Nabarra maitea.

IÑAKI: Zer gu? Otso errabiatu batzu.

AITOR: Othoi haurra ez zadazula egia gorde, nunbeit bada johan eztenik.

IÑAKI: Ba inan, guk, gaztek, maite dugu gure herri zaharra.

AITOR: Uste maite duzuela, hor zaudezte arrotz batzuei itzuliak, ama uz eta amizuna har, baina xuxen zer gerthatzen da erradazu othoi Iñaki.

IÑAKI: Badakizu Aitaso, Fernando Castellako erregea, Nabarra beretuz ari dela, bormontosen laguntzarekin, baina gure zuzenezko erregea Juan d'Albret da, Agaramontek hura dute atxiki nahi.

AITOR: Anaiak etsai zer izigarrikeria, baina zuhaurek Iñaki zer diozu? (*ixilik dago*) Ala ez dautazu erran nahi?

IÑAKI: Nehori ez dut errana oraino, Amari ere ez, baina zuri erranen dautzut Aitaso. Zonbat denbora huntan eskualde hortako Agaramonten buruetarik naiz.

AITOR: Eta zure anaia zer ari da?

IÑAKI: Ez daut behin ere aiphatu, baina dakitana da, bere herria itsuski maite duela... baina xo, norbeit heldu zauku, Anton ditake.

II

Berak, ANTON
(IÑAKI xutitzen da, ANTON Aitasorenganat hurbiltzen)

ANTON (*irriz ari nahi*): Agur, Aitaso zertan gare?

AITOR: Gaizkiago ere izan ditake, oraino bizi nizenez geroz. Zuhauk zer diozu, akhitua zira naski.

ANTON: Asko lan baitut egun hauetan.

AITOR: Bada ba lan eta grina bazterretan, berri onak direa bederen?

ANTON: Batzuentzat onak, bertzezat txarrak.

AITOR: Egie, baina Nabartar leial bati nola izanen zazko onak, anaiak ikusten dituelarik elgarrentzat herraz betheak. Zer diozu, Iñaki.

IÑAKI: Herria saltzen duen anai baten hastiatzea, eni zuzen zaut.

AITOR (*harritua*): Ah, zuri zer zautzu, Anton.

ANTON: Eni ere, hala-hala.

AITOR: Gaixo haurrak, girixtino bat, eskualdun bat, hola mintza ditakela gauza bathitzeman behar dautazue haurrak.

ANTON eta IÑAKI: Zer bada, Aitaso?

AITOR: Bethi anai egoitea, bethi elgar maitatzea.

IÑAKI: Zer uste duzu elgar hastiatuko dugula?

ANTON: Elgarren etsai izanen garela?

AITOR: Nork daki? Geroaren berri, Jainkoak baizik daki.

IÑAKI: Hitz emaiten dautzugu ba, elgar maitatuko dugula, eta gure ama lagunduko.

ANTON: Gaur eman hitza sekulan ez dugu janen.

AITOR: Banakien ba haurrak emazkidazue zuen eskuak, ene eskuetan tinka ditzadan, eta bethikotz baterat bil, eta orai amari jin dadin.

III

*Berak, MIREN
(Iñaki berriz heldu da bere Amarekin)*

AITOR: Ah, Miren, ene alaba maitea zato eta emadazu eskua. (*AITOR eztul egiten hasten da eta MIREN laguntzen ari zaio*) Behar dugu berezi, zerurat banoa, zu lurrean egonen zira othoi ez nigarrik egin, egun batez elgarretaratuko gira, Jainkoaren aldean (*MIREN nigarrez ari da, bere burua Aitasoren eskuetan*)

MIREN: Badakit ba aita, Jainkoak elgarretaratuko gitu, eta behar bada ainitz denbora gabe, bainan memento hauk bethi garratzaki dira.

AITOR: Garratzak bai, eta orai seklan baino gehiago.

MIREN: Eta zu johan zure beharra ginuelarik.

AITOR: Egia erran, zer othe dakarke geroak?

MIREN: Bainan aita zertako bada haurriden arteko herra eta gudu horiek zertako elgarren maitatzeko hain errex delarik.

AITOR: Zertako, nik dakita, gizonen gaixakeria... (ametsetarik) hain errex delarik elgarren maitatzea, orhoit zirea Mirentxu?

MIREN: Zertaz, Aita?

AITOR: Zure haur denboraz, zer gozoa, zuek denak bilduak, zuen ama gaixoaren inguruan.

MIREN: Aita, akhituko zira. Hobe duzu ixiltzea.

AITOR: Zer gozo orduan, bainan ni zahartu eta haurrak bat bertzearen ondotik joan, dohakabeak, nun dira orai? Carmen eta Marixan, Castillarat abere heien artean baxharrik, ihardokiko othe dute gaizoak? Imanol eta Ganix, arraintzari azkar eta gazte dire, bainan baxharrik, haurñoa maite-maitea, hain airos eta arin etxen egon balira.

MIREN: Jinen dire aita, zeru gainetik ikusiko ditutzu etxe huntan berean denak bilduak.

AITOR: Agian, agian, nola othoiztuko dutan Jainko ona, bil ditzan etxerat haur galdu horiek, begira dezan gure Nabarra maitea.

MIREN: Zaude bada ixilik aita, ez dea goxo ixilik egoitea, bat bertzearen ondoan algar maite delarik?

(Denak ixilik egoiten dira, AITORrek nekez hats hartzean dubet betan AITOR jartzen da ohean, eta ametsetan bezala hasten da)

AITOR: Ah, urrunean zoin ilhun, lanho beltz batzu, bainan han urrun biziki urrun, itsasoko aldean abendoko aldean, zerbait xuri, argi-argi bat, izar bat, zer distira, handitzen ari da, handitzen, ikuzki bat orai.

MIREN (*izitua*): Aita...

AITOR: Iguzki paregabea, bazterrak sutan ezartzen dituen, itsasoa dir-dir (*zerbait erakusten du erhiaz*)

MIREN: Baina deus ez da hor, Aita...

IÑAKI: Deus ez dugu ikusten.

AITOR: Ah, joan da orai, eta ni ere banoa, Miren kurutzea, kurutzea.

MIREN: Horra aita, besoak zabalzen daukitzut, zure behar dago...

AITOR: Jesus, Jesus, Jainko maitea, Miren, Iñaki, Anton, ikus arte zerua... Nabarra...

(Lan bidekariak, leihoaren gibeletik kantuz hasten dira ezti-eztia)

I/- Pausatu da Aitor menditarra
itzali da haren kharra
entzuntzazu Jaun goiko samurra
Eskualdunaren nigarra

*Pausatu da
Aitor ona
Aingeruekilan zeruetan
aurkitzen da lorietan
Hil da Aitor ona
Guk hain maite ginuena
hil da Aitor ona*

*2/- Itsasoko haguna bazain xuri
Xolomaaño bat iduri,
arima eman du Jainkoari
irriño bat utziz guri.*

...// pausatu da

BIGARREN ZATHIA

Bi anaiak

I

SATAN, DON PABLO

Ostatu baten barnean, SATAN eta DON PABLO edaten ari dira mahai batean.

SATAN: Erran bezala beraz, Pablo, hire arima ene, Nabarra hire.

PABLO: Egiazko Satan hiz, ba hi, badakik jenden bilzen, bainan halako duda batean nagok oraino.

SATAN: Dudan? Zeren beldur hiz enekin? Mundu huntako nagusi ni nuk. Nik diat ezartzen bihotzetan herra eta mendekio gosea, nik jazarrarazten jendeak beren errege eta buruzagien kontra, nik errabiarazten gizonak ni emaiten heieri gudukatzeko eta odol ixurtzeko tirria. Nik ditiat bihotzak estekatzen, nik estekatzen eskuak, orotan ni nuk nagusi, etxerik xumenean, Aita Sainduaren egotzan bezala.

PABLO: Bainan, Jainkoa?

SATAN: Bego hura zeruan, bere aingeru eta Sainduekin. Untsa orhoitzen ahal duk lur huntaz, lur hau Pablo, enea duk; ni nuk nagusi bakhar, horiek hola, Nabarra hire duk hire arima eni eman orduko.

PABLO: Ederki, bainan errexe baita Nabarraren biltzea... Zer uste duk direla puttiko horiek.

SATAN: Sinheste tipiko gizona, ez duka ikusten elgarren artean ez direla akort... Agaramontes eta Bromontes, ez dituk gehiago gizonak, abere errabiatu batzu dituk, jende hiltzaile, jende jale batzu, elgarren artean nahas araziz geroz, zer da heietaz nagusitzea? Balia hadi saltsa hortaz, ez duk lan gaitza.

PABLO: Egia duk, bainan hire elhe ederrak ez die ixilarazten ene baitan aditzen dutan boza: "*Pablo traidorea, gizon hiltzailea, Moroan eta Juduen odola ez aski, Eskualdunen odolaz nahi hiz oraino ase*". Bethi errepika bera, hor, barne hortan.

SATAN: Ithozak, itho.

PABLO: Errex baia.

SATAN: Ask, Nabarra nahi duk?

PABLO: Bai.

SATAN: Hori duk garbiki mintzatzea eta orai ezagutzen duk Anton de Etxeberrieta?

PABLO: Bai Bromontesa duk eta arras adixkide gaituk.

SATAN: Bazakiat, eta ederki enganatzen duk, ustez eta Nabarra salbatzen duan hire onetan ari duk bazakiat ere hunat jin beharra zaukala, gaur mintzatzerat. Bainan hau ez dakik, Aitaso hila zakok, hamabost egun hauetan eta nehor ez duk izanen bakearen atxikitzeko. Iñaki bere anaiak gerla piztu duelarik, Iñaki Agramontes baita. Berak ez zakik oraino elgarren berri bainan nik bihotza zolan denak ikusten ditiat.

PABLO: Nik uste baino gehiago hiz, Satan...

SATAN: Behar den denbora hartuko duk, ez tarrapataka har.

PABLO: Hago gostuan, berehala hemen baituk Anton, bere gizonekin, hik hobe duk joaitea... Noiz ikusten ahalko hur berriz?

SATAN: Noiz? (*irriz*) Ah, ah, ah, bainan bethi hirekilan nagok hihaur ohartu ere gabe, hire ondoan gordea. Eup, nagusia!!!

PANTXO: Heldu, jauna, heldu.

SATAN: Zenbat?

PANTXO: Bost sos leiteke zuzenez, bainan zuri jauna uzten dautzut hiruetan.

SATAN: Ez eni holakorik erran, sos erdi bat etzian balio denak. To halere bost libera.

PANTXO: Jauna, holako bihotz ona nork ikusi du, behin ere, lagunduko zaitut zure arroparen ezartzen... Jauna arno ez bezalako edariak baginintuen nahi izan bazinitu.

SATAN: Ni jin nizan lekhitik hin eta edari onak edan baino nahiago dugu egarria hil.

PANTXO: Zer da, biziki bero zuen etxean?

SATAN: Gure etxen hire gantzaren urtharazteko aski litakek nik hunen (ostiko bat emaiten dako) emaiteko denbora gutiago. Ausarta hi!!! Uzten hut Pablo, egin ontsa hire lanak.

PABLO: Ez adiorik galtza gorri.

PANTXO: Galtza gorri baitu izena?

PABLO: Zer da gero?

PANTXO: Emailea da galtza gorri, baina gozoa ez.

II

DON PABLO, ANTON, Nabartar batzu...

PABLO: A!!! Oraino ez heldu heiek!!! Eta denbora ere hozten ari... Ah, oraikoan hor ditugu naski!!!

(Bortha idekitzen da)

ANTON: Agur Don Pablo, berantetsiak gintuzkan nik uste.

PABLO: Hasia da berantesten (*denak jartzen dira mahai inguruan*)

ANTON: Huna orai nun giren, gaur guzia bediuk elhestatzeko.

PABLO: Gaur guzia? Goizono lekuak husturik ere... zer gertha ere...

NABARTAR BAT: Uli bustia...

BIGARREN BAT: Zer hiz gure beldur..

PABLO: Ez diat nik holakorik erran.

NABARTAR BAT: Mintzatza beraz eta zalhu, bestenaz pozikatzen gitu gu.

ANTON: Kalma, kalma, Migel, gure etsaia balitz bezala mintzo hiz dukeari.

PABLO: (*aphalik*): Hala ere nuk ba eskualdun zikinak, ai urdiak, Alkantarrako dukeari hola mintzo. Ikusiko diauk nork duen azkenik irri eginen. (*Gora*) Beraz jaunak badakizue zertan giren, Agaramontes horiek Nabarra nahi dute saldu Frantses debru bati. Bainan, Fernando Katolikoak, gure Espainiako errege maiteak, lagunduko zaiztuzte eta zainduko, eta hitzemaiten dautzuet utziko zaiztuztela zuen Nabarran libro bizitzerat. Hura onhartzen baduzue zuzenezko nagusizat. Bromontes gehienak onhartu dute jadanik, jarraik zuek ere heieri.

NABARTAR BAT: Nork daki ez gintuzenez enganatu nahi?

PABLO: Fernando erregeak, ez du behin ere gezurrik erran. Pablo dukeak ere ez. Nork dio hemen ez dela hala.

ANTON: Ez kexa, ez kexa, odola berokoa dute Nabartar hauk. (*bere lagunerik*) Hea puttikoak zer egiten dugu?

NABARTAR BAT: Espanol eta Frantses lehen egin dezate denek.

ANTON: Egia, baziak ba jauntto horiek laguntza eskainka ari zauzkularik, beretzat ere zerbeit onik sendi dutela hor, bainan batek esklabo ezartzen gitin, berzeak begiratzan, bietarik bat behar eta zoin dugu hobe?

NABARTAR BAT: Zoinek gaituen esklabo ezarriko eta zoinek begiratu hontan duk dena.

ANTON: Kastillako erregeak, hitzeman zioten gure Gipuzkoko, Bizkaiko eta Alabako anaiari utziko diotela beren libertatea, eta erran bezala egin zuen. Aldiz, gure Nabarrako errege gaixoeak Frantses motako errege horiek Eskual herri ez dute osorik atxiki ahal izan ere.

PABLO: Ah, ah, ez niz gero ni mintzo orai.

ANTON: Asa anaiak delibera hor gure herriaren onetan.

NABARTAR BAT: Hik errana onhartzen diat.

DENEK: Nik ere ba, nik ere ba.

PABLO: Zin egin dezagun adixkideak, gaur hitzemaiten duguna eginen dugula bethi. (ezpata eskuan) Jainkoaren aintzinean erregeren izenean zin egiten dut Nabarraren libertatea eta zuzena osorik egonen direla Espainiako erregea nagusizat onhartzen duen ber.

NABARTARRAK: (beren punalak kurutze ezpataren inguruan): Zin egiten dugu Espainiako erregearen meneko girela leialki harek gure libertate eta zuzenak osorik uztektan.

ANTON: Eta beren herria daldu nahi duten traidore guziak garbi ditzagun

DENEK: Garbi denak...

(Nabartarrak ateratzen dira, ixil-ixilik, hitzik erran gabe)

III

PANTXO

(Sartzen da PANTXO ixtant baten buruan)

PANTXO: Azkenian eta baso bat ere ez baitute hartu... Besteak ez bezalakoak dire ba haatik. Eta beste kastillatar hura zer debru zuken? Bere jaun handi molde zapel lumadun eta bota ziratuerekin, holako makheto batetarik zer behar othe dute Nabartar batzuek? Hots... Bromontesak dira, bromontesak zer zori mota othe dira heiek, bromontesak... Xo, bozak badire!!! Ez uste nuen. (*punala ikusiz*) To, punala ahantzi dute hemen, ederxkoa punala, zilharrezko lama, giderra kurioski lanthua! Izena ere badu berekin! Eta urhezkoa oraino! Hea nor den? A. De Etxeberrieta. To, Anton erraiten baitioten bati, harena duk naski, ba muthiko handi baltzan bat! Ba xamarta muthikoa. (*irriz*) He, he, he, gure Katalinek ikusi balu... zer domaia haatik kaztillatar zinkhin harekin ibiltzen baita, bekhatu duk harendako. Baina, jes, beharriak ari zaizkit zurruntzen ala ze?, alta aditzen dut, bada kanpoan norbeit mintzo... Jainkoa, tenore huntan.

(*PANTXO hurbiltzen da emeki leihoari baina bet-betan norbait ari da athe joka.*
PANTXOk sajelan ezartzen du punala egin ahal fite)

BOZ BAT (*kanpotik*): Ez dea nehor? (*Berriz ere athe joka*)

PANTXO: Polliki, polliki, etxea errorarazi gabe, polliki heldu niz.

IV

PANTXO, IÑAKI eta Nabartar batzu

NABARTAR BAT: Gau on, Pantxo, zertan gira?

PANTXO: Hi hizenā, Martontxo, ni doian nor ziren athea saltzarazi nahi zautaten salbaiak.

MARTONTXO: Salbaiak? Ez, ez, haatik beharrik ideki daukuk aski goiz athea zazpi pusketan ezatzen ginian.

PANTXO: Debruen urdiak.

MARTONTXO: Alo, alo, ez kexa, zombait lagun gituk elgarretaratuak eta bi solas nahi baginintuen egin, hunat jin gituk.

PANTXO (*aphalik*): Gaur denak bilkura gose dira naski.

MARTONTXO: Zer dela?

PANTXO: Deuse, deuse.

MARTONTXO: Beraz, ttotta bat Pantxo, eta fite.

PANTXO: Ba gogotik... Onetik ekharriko deat, zaharretik! Gure aita zenak duela berrogoi ta hamar sotoan ezarria, hi haizelakoan.

MARTONTXO: Bisaia balio likek egun hautarik batez hire sotoaren ikusterat jitea.

PANTXO: (*jalitzean*) He, he, he, horiek bederen gizonak dituk. (*Nabartarrak jarri eta*)

MARTONTXO: Hea, Iñaki, gaur behar diagu deliberatu hi hauk zer duk eginik.

IÑAKI: Ene iduriko ez da dudarik, bromontes Nabarra daldu nahi dute Espainiako erregeari, Agaramontesak aldiz, Jean d'Albret gure zuzenezko erregearen alde dituk, hortako nik ere Jean d'Albret eskualdea hartuko diat, harekin Nabarra bere kondu biziko baita libro.

MARTONTXO: Egia duk, erregea bat badiuk Jainkoak gure buru ezarria. Gora Jean d'Albret eta Nabarra.

IÑAKI: Adixkideak, zin egin dezagun hemen gudukatuko girela eta beharrez hilen gure herriaren libertatearen zaintzeko

DENEK: Zin egin dezagun. Jainkoaren auren [aphalik] zin dakigu gudukatuko dugula eta beharrez hilen Jean d'Albret gure erregearentzat eta gure libertatearentzat.

IÑAKI: Eta traidore guztiak garbi

DENEK: Garbi denak.

PANTXO (*heldu da botoila bat eta basoekin*) Ho, ho, ho, ez ahal niz bederen traidore horietarik.

MARTONTXO: Ah, ah, hor hintzana ? Ez izi gaizoa hi bezelakoak ez ditiuk hiltzen, noiztenka sotoa huts-eta hor geldi.

(Irriz ari dira, edaten ari dira...)

NABARTAR BAT: Errak, Iñaki? Kantu bat behar huke orai eman.

BIGARREN NABARTAR: Hala duk. Errak egun horietako hura: *Nor da zure bakearen hiltzale?*

MARTONTXO: Hea, hea, Iñaki, ala belhaukatu behar gira galdegiteko.

PANTXO: Ai Jauna, loriatzen ni ere kantu aditzen, boz pollit delarik erran gabe doa.

(Denak irriz ari dira)

IÑAKI (*xutik kantuz hasten da*):

Nor da zure bakearen hiltzale

nori ba zuk eginahal ziozun kalte

nere eskual herri maitea

[Monzon jaunaren olerkia]

(Denek errepikatzen dute)

belardietan lorea

lorerik ederrena bakea

(Denak ixil eta PANTXO elheka bere buruarekin)

PANTXO: Ah, ah, hola lakhetago da, lakhetago bai.

NABARTAR BAT: Zer lakhetago?

PANTXO: Ba, eta... zera??? eta... oxtian... ez zirela hola ari.

MARTONTXO: Nor ez hola ari?

PANTXO: Nor? Eta... heiek... besteak... zer dituzue dena jakin behar? Nahiz... zueri erran ditake ba naski. Haatik ez nezake ez erran behar.

NABARTAR BAT: Mintzatuko hiza zer debru, ala nahi duk tripak atheratzea?

PANTXO: Polliki, polliki... horra zuek jin aitzin berze batzu baziren hemen, ez ziren zuek bezala, kantuz ari!!! ez zuten edaten ere eta gero bazuten berekin kastillatar zinkhin bat dena handi molde... urdia nik hura ezin irets.

DENEK: Bromontesak?

PANTXO: Ba, justo, hala orai orhoitzen niz, bromontesak!!! Ba eta batek punala ahantzi du hemen izena ere badu berekin. Eskualdun izena segurki, eta halere zaude...

(sakelatik atheratzen du punala) Horra, A. De Etxeberrieta.

IÑAKI (*xutitzen da bet-betan*): Zer deasak traidorea!

PANTXO: Jauna... ikusazu zuhauk.

IÑAKI: Harena duk ba!!! Ene anaia bromontesa? Ene anaia herriaren saltzale?

PANTXO: Jainko maitea zure anaia? Jakiteat...

IÑAKI: Ixil!!! Gaurko aski.

(Denak ateratzen dira ixilik)

PANTXO: Aie, aie, ai, hauxe ditugu izigarriak berzek ez zuten zortik edaten, bainan hauek edaten dute, hoberenetik edaten eta pagatu gabe johan, hau ez denez izigarri.

HIRUGARREN ZATHIA

AMA

I

MIREN, IÑAKI

MIREN: Alo, Iñaki, jan zazu bada poxi bat, zer duzu zuk ere goiz huntan, zer zire eri?

IÑAKI: Ez, ama, ez, ez, ez niz gose.

MIREN: Ez gose, zure adinean? AKITZEN ERE ZIREZTE HAATIK, Anton eta zu harat eta hunat, alde bat trostan, ez dakit zer ari zirezten behar ez denik ez duzue egiten bixtan da, bainan uste duzu ama batentzat gozo dela semeak hola uztea?

IÑAKI: Ama, othoi...

MIREN: Ah, zer heina dutan, aita gaixoa joanez geroz, nehor ez indar poxi bat emaiteko.

IÑAKI: (bere ama ondoan jartzean): Bainan ama badakizu maite zaitudala egun hautan, bixta da, zernahi lan badut, bainan jakin zazu gure onetan ari nizela, zure onetan.

MIREN: Ene ona nahi duzu, hori segura, bainan Iñaki nola har ditake emaren onetan, ama etxean bakharrik utziz, hits eta dohakabe, horra atzo ere egun guzian kanpoan zinen, eta ilhun belzean jin zira gibelerat, Anton ere bardin.

IÑAKI (*xutizen da bat-batean*): Egia duzu goizago jin baininz barda.

MIREN (*itzulirik*): Jainko maitea, zer duzu Iñaki? Behar ez den zerbeit erran othe dauzut.

IÑAKI (*ilhun, bere amari so egin gabe*): Nun da Anton? Ez othe da fitesko jinen?

MIREN: Bainan ez dakit nik haurra zer ari den, ez daut biziki dalhatzen zure gisa... zer duzu lan zerbeit behar bada harekin egiteko?

IÑAKI: Ez, eta nahi ere, gauza bat behar diot erran, beherra, barda ahantzia zuena.

MIREN: Ahantzia, nun othe?

IÑAKI: Ba hori, urrun, hirian, Iruñan.

MIREN: Iruñan, zertarat joan zirezte Iruñarat?

(IÑAKI jartzen da)

MIREN: Xo, norbeit heldu da, Anton da segura. Jainko maitea urrikal zaite gutaz, zer gerthatu zauku, zeren behar gaude.

II

Berak, ANTON

ANTON: Jainkoak dauzuela egun on Ama eta Iñaki.

MIREN: Bai zuri ere Anton, berant heldu zira, nindagon zer gethatu zauztzun.

ANTON: Ez odol gaxtorik egin neretzat... ama hogoi urthetan ez niz ez haur bat, bainan zer duk Iñaki, biziki ilhun hiz egun... Alo, Iñaki, zer duk mihia galdu egun, ez othe dautak deus erranen egun?

IÑAKI: Ba, zerbait badiat erraiteko, to, han barda ahantzia huen Pantxoteian. (*punala ematen dako*)

ANTON (*alegera*): To! Gaizo ene punala, nun galdua othe nuen ari nintuan, ah, ah, ah, ez nindagoain ixtan bat atzemanik (*serioski*) bainan zertan izan hiz Pantxoteian?

IÑAKI (*gogorra*): Erranen dautaka hihauri zer ari hintzan?

ANTON: Alo, ez othe da haizu zenbeit lagunekin ostaturat joaitea elgarrekin goxatzeko? Jes, hi ere izan hiz, zertarat joana hintzen?

IÑAKI: Hi bezala lagunekin goxatzerat, bainan laguntzat traidore batzu hartzeko orde Nabartar leial eta zintzoak hartzen ditiat, egiazko euskaldunak.

ANTON: Ni traidorekin nabilala? Zer erran nahi duk? Mintza hadi garbiki!

MIREN (*bien artean*): Jainkoagatik, zaudezte polliki haurrak.

IÑAKI: Utz, ama, utz gizatzu gure auziaren xuritzerat berriz ere erraiten deat traidore batzuekin habila, jendea enganatuz, beren herria arrotz eta etsai batzueri saldu nahi duten traidore batzuekin.

ANTON: Nik herria saltzen? Nik Aitorren semeaxia?

IÑAKI: Hik hauk nahi ala ez, hala duk. Zer bromontes horiekin bethi kastillatar handi-mandi batzuen ondotik, Nabartarren odolaren xurgatzeaz berzerik ez baitute gogoan.

ANTON: Agaramontesa hitz amets?

IÑAKI: Hala nuk eta egonen ere.

ANTON: Aseak gituk Frantses herrietaz, nahasmedurik baizik ez die emaiten gure herrian, kanporat frantsesak.

MIREN (*nigarrez*): Haurrak, haurrak.

IÑAKI: Jean d'Albret duk gure zuzenezko erregea.

ANTON: Nahi bezain zuzenezkoa izanikan ere errege batek bere eginbideak ostikatzen baditu, ordain bat behar dik.

IÑAKI: Maketoak ordain?

ANTON: Maketoak? Maketoa baita gure libertateak osorik uztea hitzemana duen Fernando erregea?

IÑAKI: Erregeren hitza satanen hitza, berriz ere erraiten deat, traidore batzu zirezte denak, maketoen zerbitzuko, heiek pagaturik pezetero tzarrak.

MIREN: Oh, Iñaki anaiari hola mintzo!

ANTON: Pezeteroa ni? Barkamendu beahr daitak galdegin eta berhala.

IÑAKI: Ni, bromontes pezetero baten ainzinean aphaltu? Ez haatik.

ANTON: Errak, to, berriz, ikhusteko?

MIREN: Bainan, haurrak, zer zirezte, erhotu? Zer duzue bada, hil nahi? Anton othoi gorde zak tresna itsusi hori, bihotza urratzen dautak, gordezak berehala, Jainko maitea. Iñaki, Jainkoagatik galdezak barkamendu anaiari.

IÑAKI: Ez, hil lehenago.

MIREN: Bainan, maitea, ene haur gaixoa.

ANTON: Agaramontes bandil batek eni, pezetero... Holako laidoa odolak baizik ez dezake garbi.

IÑAKI: Ni, bandila naski? Horrek ere odola behar dik ezeztatzeko.

MIREN: Iñaki... Anton... (*MIREN erortzen da, flakatzen*).

(Orduan, lan bidekariak leihoan agertu eta hasten kantuz)

I

Geldi, geldi, geldi,
zer, elgar hil nahi,
anaiak guduka,
barka, barka, barka
etxe huntan norbeit
herioaren guait
orhoit zireztea
aitasoren deia
nun da zuren hitza,
nun zuen agintza.

II

Juramenturekin
biek elgarrekin
anai maitasuna
zuek hitzemana
esku aldu aianaik
atxik zuen hitzak
nor du arnegatu
nahi bilharkatu

III

Bainan satan belzak
entzuten ditu denak
kanpoan haizea
marruma luzea
ostoa daldaran
jendeak ikharan

(Satanen boza entzuten da)

IV

Ez Anton ez barka
harek hiri pezetero
bere odol bero
edanzak esku aska
eta hi Iñaki
bandila deithu hu naski
gudura gudura
bai tripak athera

IÑAKI: Ez, ez hemen, Aitorren etxean.

ANTON: Kanporat beraz.

(Atheratzen dira)

III

*MIREN, SATAN, DON PABLO
(SATAN eta DON PABLO leihotik sartzen dira)*

MIREN: Jainko maitea, nun niz... zer gerthatzen zaut? (orhoit da orduan) Ah, jes, non dira oraino juanak, kanpoan? Bainan nun othe? (leihorat hurbiltzen da) Eta deus ez ageri, bainan elgar hilen dute, elgar hilen anaiek.

SATAN: Ba, ba, anaiek elgar hilen, ah, ah, ah.

MIREN: Oh, nor zitut zu? Zer duzu irriz, ama baten bi seme bakharrak elgar hilen dutelakotz irriz.

PABLO: Ba, hartako, hek elgar hil eta zu enekilako.

SATAN: Hirekilako, hirekin emaiten baduk, nahi dituen guziak egin araziko daizkik, animale ona hori, lehen-lehenik kofesatzerat igorriko hu, ez ereman ez bainan garbi.

PABLO: Funtsean, hain on da naski.

SATAN: Zer bada, Aitor zaharraren haurretarik bakharra duk gelditzen dena, berzeak pullikino bilzen ditiaguk, handik preka, hemendik lausenga, bilzen eta nola, bainan zertako jokha bethi gisa berean, Mireni ezpata ukhaldi bat eta fini.

PABLO: Orai berean?

SATAN: Zertako ez?

PABLO: Saka beraz (MIREN ihesiz, oihuka, "Iñaki, Anton") Fite, ah, ah (PABLOk kanpoan hiltzen du. Berriz heltzen da erranez:) Horra egina, eta zalhu gero, lehen kolpez.

SATAN: Ederki Pablo, gaitza hori.

IV

*Berak, ANTON
(ANTON sartzen odolez betherik, eta kolpaturik)*

Lan bidekariak

I

*Anton nun duk anaia
entzunak salbaia
odolaren deia
ase duk odolez lurraren ahoa
Iñakiren odol beroa
Madarikatua
hire gaztigua*

II

*Ifernuko sua
Anton ezagutzen duka
Abelen marraska
Kain arnegatua
madarikatua
Anton Kain
zer egin
Anton Kain*

ANTON: Amak egin du oihu?

SATAN: To, huna nun dugun bestea.

ANTON: Nun da ama?

PABLO (*ezpata erakutsiz*): Ez duka ikusten.

ANTON: Hik hila traidorea, zin egin ondoren ene adixkide hintzela, lagunduko nindukala eta begiratuko.

PABLO: Pollikiago othoi, ez baduk nahi hik ere harek bezala nahi.

ANTON: Emak ikusteko?

PABLO: Gaizo ez deusa, gu bien kontra zer nahi duk egin? Hire haur ganibeta txarrarekin?

ANTON: Zer egin nahi? (*bainan ANTONek punala hartu aintzin PABLOk hiltzen du ezpata ukhaldi batez*)

ANTON: (*hiltzerakoan*): Traidore debrua, egian zian ba Iñakik, erregeren hitza, Satanan hitza, jakiterat, Aitazoren errana jarraiki banintz, berantegi orai berantegi, ene anaia hil dut, ez zuen hobenik, zeruak mendekatu du eta ni anaiaren hitzen ari nintzelarik, etxen ez nehor amaren begiratzeko... ah, erraiten ahal banu, Nabartar guzier oihu egiten ahal banu!!! Eskualdun guziera goizean ikusgiak gure mendiak argitzen dituelarik arratsean itsaso zabala gorri-gorria, ezartzen, gure mendi odoleztatuen hastetik oihu egiten ahal banu, anai guzier. Zatozte eta ikus, zer dakharren anaien arteko herrak, ama hila, familia suntsitua, anaiak gelditu zuen anaien hiltzetik, gorde zuen gabibeta, ez zaizuela athera, etsaiari ihardokitzeko baizik, elhe ederrez lausengatzen gituztelarik... gure artean gerla pizten eta gu kanpoan girelarik gure ama hitzen, gure ama Aberria, Nabarra maitea, eskualdun guzien herria. (*Hiltzen da*)

SATAN: Pablo, debru bat eginen duk hauta, bainan goazen hemendik ifernuan ere ez duk ikusten holako izigarrikeriarik.

BELA